

## **Funtsezko jarduerak (Baserri eskola)**

Gure baserri eskolan, haurrak munduari edota bizitzari buruz ikasi dezaten, jarduera ezberdinak erabiliko ditugu, hau da, haur eskola bat izango da baina ahalik eta baliabide gehienak erabiliko ditugu, ezagutzak aurrera eramateko. Horregatik, garrantzia ematen diogu baserri eskolari zein naturari, bi baliabide oso garrantzitsuak dira, hezitzaileekin batera guzti honekin aurrera egiteko.

Laburbilduz, haurren heziketa prozesua emateko erari buelta bat eman behar zaio. Horretarako, haurrari bere gaitasunak garatzeko material nahikoa eta pertsonalizatua eskainiko diegu eta horrez gain, natura edo ingurunearen bitartez lortuko diren material horiek. Azkenean, gure hezteko prozesua Pikler eta Montessori ereduetan oinarrituta dago eta haur bakoitzak bere zaintza prozesu pertsonalizatua izango du.

Beraz gure funtsezko jarduera haurren heziketa prozesu horretan zentratzen dela esan daiteke. Baina, baserri eskolaren funtzionamendua era egoki batean mantentzeko, beste jarduera batzuetan kanpoko beste hainbat enpresekin harremanak izango ditugu. Adibidez, baserri eskolaren garbiketaz arduratzeko kanpoko enpresa baten eskuetan utzi egingo dugu. Horrez gain, gure idazkaritzan ordenagailuak egongo direnez, haien funtzionamendu egokiaz arduratuko den enpresa batekin erlkarlanean arituko gara.

Gure jarduerak errealitatearekin batera jorratuko dira, hau da, gauza berriak ezagutzerakoan, errealitatea izango dute haurrek parez pare, horrelakoa dela zihurtatzeko eta ez antzerako zerbait soilik.